



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko abenduaren 6ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, abenduaren seian, zazpietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN JeanMarc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, HEGUY Antton
Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine

Deialdiaren eguna : 2022ko abenduaren 2a

Afitxatze eguna : 2022ko abenduaren 2a

2. ERABAKIA: ABENDUAREN 24 ETA 31AN ELIKAGAI SALTOKIEN IREKITZEKO ESKAERA

(9.10 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarkideei jakinarazi die, Gilles GANDON jaunak, SAS Ossès Distribution sozietateko lehendakaria dena, 2022ko urriaren 25eko gutun bidez eskatu zuela 2023ko abenduaren 24 eta 31an, igandearekin, elikagai saltokietako langileak lan arazteko baimena eskatu zuela.

Zehaztu du, Frantziako Lan Kodeko L.3132-26 artikulua araber, «normalean igandea atsedeen egun duten elikagai saltokietan, igande seinalatueta atsedeen eguna deuseztatu daitekeela, saltoki bakoitzarentzat, auzapezaren erabakiz, Herri Biltzarraren iritzia eskatu eta gero. Urte zibil bakoitzeko, gehienez hamabi izan daitezke lan eginen diren igandeak. Aitzineko urteko abenduaren 31a baino lehen finkatu behar da lan eginen diren igande horien zerrenda. Zerrenda urtean zehar ber baldintzak betez aldatu daiteke, aldatua izanen den igandea baino gutxienez bi hilabete lehenago.»

Gehitu du lehenago aipatu kodeko R.3132-21 artikulua araber, auzapezak erabakia hartzeko lehenago hunkituak izanen diren nagusien eta langileen erakundeen iritzia eskuratu behar duela.

Biltzarkideei proposatu die, 2023ko abenduaren 24 eta 31an, igandearekin, elikagai saltokiei langileak lan arazteko baimena ematea.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrek,

- **ERABAKI DU**, 2023ko abenduaren 24 eta 31 an, igandearekin, elikagai saltokiei langileak lan arazteko eskaerari aldeko erabakia ematea.
- **AGINDU DIO**, Auzapezari langile eta nagusien erakundeei beren iritzia eskatzea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 8

KONTRA : 1

ABSTENTZIO : 4

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko abenduaren 6an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/12/12an publikatu edo notifikatu ondoan, Eta
Prefeturan pausatu ondoan 2022/12/12an.

